

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

67. zenbakia

95eko martxoak 24



FOTOETNE

Zegama txirrindularien zain

SEAT IBIZA

Teknologia alemaniarra
bertako prezioan



SEAT ALAI

San Esteban, 6
☎ 65 48 75 - 65 01 62
TOLOSA

Iure Auzoa z/g
☎ 16 15 69
OLABERRIA

Jon Lizarralde beasaindarrak 40 urte ditu, Porterikoa da, Zientzia Enpresarietan diplomatua, beste hainbat ikasketa ere baditu.

Goierriin aditua

Bere ibilbide gehiena Kutxarekin lotua egon da: Lazkaon hasi, Ordizian urtebete Faustino Etxebarrietarekin, Goierriko (Zegama, Ataun...) sukurtsaletatik ibiltari ibili eta azkenean Beasainera; Kale Nagusikoan 7 urtez izan da zuzendari eta 3 urte daramatza Erauskinekoaren zuzendari. Euskaldun peto honek gorbata airoso asko eramaten du azkenaldian, laneko tresna bat besterik ez da berarentzat, beste batentzat buzoa izan litekeen eran.

Goierriko ekonomia nahiko ondo ikusten du. "Hemen gehiago aurrezten da, inbertitu baino. Kostaldeak Goierriko inbertsio asko eramaten ditu, partikular askok erosten dute Zarautz, Donostian... 2. etxebizitzak. 94a, krisiak krisi, oso

urte ona izan da Beasainera, asko aurreratu eta inbertitu du jendeak, pisu pilo bat saldu dira: bertako Notarian abendu hile errekorra izan da, inoiz ez da hainbeste eskritura sinatu (BEZa %6tik %7ra pasa baita 95an)". "Krisia gainditzeko" ari bagara ere, inbertsioa makal dago hila beteotan, baina aurrezten da.

Beasaingo nagusitasuna

CAF eta bere inguruko tailerrak ondo dabilta eta horrek badu eragin onik. Komertzioan kon-

KUTXAren eskeintzak
* **Aurrezte inbertsioa,**
epe erdi edo luzera, "In-
verseguro", "Urrezko
kontua" (3. adinekoen-
tzat bereziki), inbertsio
fondoak
* **Kontu-gain (libreta eta**
Ktu. Kte. batean, korritu
bereziarekin)
* **Maileguak (etxebizitza-**
rako, etxerregilerako,
kotxearentzat, e.a.)

traesan bat ikusten du: edo bezeroei gehitxo eskeintzen zaie, edota bezeroek beste herrietara mugitzen dira. Kasua



da, ondo prestatua egon arren, sektore honetako zenbait makal xamar ote dauden susmoak dituela Lizarralde. "Ondo dabil-tzanak, abasto ematen ez dutenak gainera, autonomoak dira: linterne-ro, arotz, enpresa txikiak... Baita etxebizitza eta baxuen saltzaile partikularrak ere". Etxe erakitzaila ugari etorri da kanpotik, CAFen egoera ona ikur bezala hartuta.

Eta hori etxebizitzak garesti daudela. 2. eskukoak ia-ia berriak adina balio omen du. "Hor 30 urte arteko gazteentzako kredito lerro bikaina daukagula esan dezakegu, abantailak baditu etxe, kotxe edo negozioak erosteko". 13.000 biztanleko Beasaini Kutxak eskeintzen dion aukera ederra aipatu digu

Jonek: 4 sukurtsal eta 4 kutxatila automatiko (Porteriakoa nahiko errebindikatua bere garaian). Astelehen-astearte arratsalde 3 sukurtsal dauzkate irekirik; beste zerbitzu bat kutxatila da, makina bat operazio egin daitezke horietan, baita kartilarekin; Telekutxa zerbitzua (dohaineko telefonoz)... Guzti horiek azpimarra-garriak direla uste du "bareak".

Enpresa eta partikularren artean egin duten banaketa ondo iruditzen zaio. Orain, berriz, Erauskin eta Kale Nagusiko bi bulegoen fusioa egitekotan dira, hobe beharrez: bezeroek zerbitzu handiagoa eta hobeagoa izango dute bai lehiatiletan eta baita 4 gestio-despatxutan.



kutxa fundazioa

fundación kutxa

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierritarak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Correos-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124 posta kutxa,

Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Rufino Iraola,
Edurne Albizu, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Jon Aizpurua,
Xabier Mendiguren, Xabier
Gartzia, Miren Larrea, Pilare
Mujika eta Aloña Galarraga.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANtza, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

**Tirada: 4.700 ale. 4.500 harpi-
dedun.**


ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
izunik.**

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Hasi da arrantza denboraldia

Aurreko igandean ireki zen Euskadin arrantzalea arraia-
rekin norgehiagoka egiteko
sasoia eta jendea hasi da ia
berriro beren arrantzu apare-
joak eta gainerakoak erosten
edo prestatzen ilusio guztia-
rekin. Aurtengoan, Goierriko
Nekazal Ganbaran 2.000 li-
zentzia banatu dira. Denbo-
raldiak uztaila bukaera arte
irauten du.

104 bazkide dituen Ordi-
ziako Azari Elkarteko Jabier
Loiarterekin egon gara eta ki-
rol honetarako zaletasuna
handitzen dihoala aitortu di-
gu. "Geroz eta mutiko gehia-
go arrimatzen da, batipat
denboraldi hasieran, lehen bi
hilabeteetan. Aurtengorako
esperantza onak daude, ura
izan da eta amorraiak izango
direla. Izan ere, zenbait el-
kartek (Zaldibiakoak, e.a.)
amorrai-alebinak uretara-
tzen dituzte urtero eta honez
gero kozkortuta egongo dira.
Hemengo erreketako urak

hotzak dira eta horregatik ez
dira gehiegi hazten. Jendeak
kontzientziatu beharra dauka,
19 zm.-tako arraia baino txi-
kiagorik ez dago harrapatze-
rik". Neurriak eta arauak
errespetatu beharra dagoela
azpimarratu digu.

Azari-ren ardurak Zaldibia,
Itsasondo, Amezketa, Ataun,
e.a.-eko errekenak dira. Beste
elkarte indartsu bat Beasaingo
Aitz-Zorrotz dugu Goierri-
n, Lareoko urtegiko amorrai-
arrantza erregulatu, bertarako
zozketak antolatu, e.a. egiten
dituena. Zale guztiak bat da-
toz keizteko orduan: "Orain
dela 4-5 urte Estatu guztian
lizentzia bakar bat behar zen.
Orain komunitate autonomo
bakoitzerako bat behar da eta
hori lapurreta da. Prezio des-
berdinak dituzte lizentzi-
hauek, neurri eta arauak di-
ferenteak dira". Politika ba-
teratu bat beharko litzateke,
beraz. Zorte ona opa diegu de-
nei.

Besteek esana

Felipe Barandiaran

"Lazkaotarra da, baina
berdin mintzatuko zaizu
bizkaieraz nahiz lapurteraz;
Kevin Costnerrek bere
ahotsez hitzegiten du *Robin
Hood* pelikulan; *Hamasei-
garrenean* aidanez euskara
hutsez 1. filmean protagon-
ista errea eta petrala izan
genuen; inoiz poesiarik
gustatu ez zaion gizon ho-
nek jendeaurrean irakur-
tzeari eman dio, Bernardo
Atxagaren "Lezioen" bar-
nean.

Goenkale-n papertxo bat
dauka, Artesena taldeak
taularatu duen *Mephisto*
obran 2. mailako pertsonaia
bati bizitza ematen dio, eta
duela gutxi Amsterdamen
izan da, aurki telebista-kate
guztietan ikusiko dugun
spot garrantzitsu bat graba-
tzen ("Nike" markarentzat):
Espainiako ahots prestigio-
tsuenen artean berea auke-
ratu du Wieden and Ken-
nedy publizitate agentziak,
6 urte arte gazteleraz hitzik
egin gabeko gizon honek ez
baitauka euskal azentu izpi-
rik ere. Ez da beharbada
modako aktoreak adina
ateratzen gure begien au-
rrera, baina kontuz ibili:
Jainkoarena bezala, badiru-
di bere ahotsa bazter guztie-
tara zabaltzen ari dela".

**Pako Aristik "D.V.-
Zabalik"-en, 95-III-15ean.**

*Eusko Jaurlaritza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko Beneditarren liburutegi-artxiboa kolokan

Lazkaoko Benediktinoen liburutegiari dirulaguntzak kendu omen dizkiote, nik gaizki aditu ez badut behintzat, eta ondorioz, liburutegia saldu egin beharko da beharbada. Oraingoan, Diputazioko funtzionarioen batzuk bertan izan dira edo laister joatekoak dira zenbait liburu (ez dira txarrenak izango) tasatu eta eramateko prestatzera. Hau da entzun dudana, eta honen aurrean hiru gauza bururatzen zaizkit, horrela, bapatean.

Lehenengoa: putreak liburuen inguruan bueltaka hasiak direnez, beharbada liburutegia euren artean partitzeko asmoarekin ibiliko dira. Hala bada, ez dago eskubiderik hainbat urtetako lanaren ondorioz bildu den liburutegi bat sakabanatzeko. Eta aspaldiko urteotan guztiok dakigu lan eskerga hori noren bizkarren gain egon den.

Bigarrena: dirulaguntza kentzea eta instituzioren batek liburuengana-ko erakusten duen interesa, elkarrekin zerikusirik ez duten bi gertaera desberdin direla sinistu nahi nuke.

Hirugarrena: Goierriko udaletan badira kultura batzordeak eta bailara honetako herrien artean bada halako erakunde amankomun bat ere. Badakigu benediktinoen liburutegia pri-

batua dena, baina hori ezin da aitzakia izan eta udalek zerbait egin beharko lukete. Mahai batengatik herri oso bat mugitu bazen, ez al du horrelako liburutegi batek hainbeste merezi?

Ia ba moitzen gean!

F. Altuna (Beasain)

Zumalakarregi Museotik

Lagun horiek: A ze flaxa, Zumalakarregi Museoko langileok GOIERRITARRAren 65. zenbakia ikusi genuenean. Egia esan, bat baino gehiago harritzeko modukoa dela ezin ukatu.

Orduan, zergatik adierazten du kartelak *Zumalacarregi museoa* eta ez *Zumalakarregi museoa*? Denok dakigunez, oso urte gutxi dira euskararen grafia normalizatua dagoela, eta zenbait kasutan zalantzak izaten dira. Zein da kriterioa XIX. mendeko pertsona izenentzat? Zumalakarregi euskalduna zen, baina erdaraz idazten zuena, eta *Tomas Zumalacarregui* izenpetzen zuen (ez *Tomás Zumalacárregui*, gaurko gaztelania normalizatuan bezala). Elissamburu poetak *Zumalacarreguy*, frantses eta ingelesaren gisara, idatzi zuen ormaiztegiar buruzagi karlistari egindako bertsoetan. Izan ere, batzuek Elizanburu ida-

tzi arren, oraindik orain gehienek *Elissamburu* idazten dute, jatorrizko grafia errespetatuz. Euskaltzaindiak ez du beti arau zehatz eta bakar bat ematen.

Museoa berriro zabaldu zenean, orain dela 6 urte, aukera egitea ez zen erraza, eta duda-mudako tarte hartan jarri zen kartela. Gaur egun, eta betiko lege finkoa ez bada ere, *Zumalakarregi Museoa/Museo Zumalakarregi* idazten dugu, hau da, euskal grafia erabiltzen dugu Museoz, instituzioaz ari garela. Pertsonaiari buruz idazterakoan, ordea, euskaraz euskal grafia eta erdaraz erdarazkoa. Museo bezala, praktikoagoa da hitz berarentzat grafia bakarra idaztea (*Museo Zumalakarregi Museoa*, adibidez). Bestaldetik, eta gure publikoaren parte handi bat euskaraz ikasi duten edo ikasten duten gaztetxoak direla kontutan harturik, euskal izenak erdaraz bezala agertzeko arrazoiak azaltzea ez da nolanahiko lana izaten.

Idazkerak gora behera, goierritar guztiak gonbidatzen ditugu Museoa bisitatzeraz, Zumalakarregiren garaian harekin (edo haren kontra) bizi eta hil ziren euskaldunen historia gehixeago ezagutzeak merezi du eta.

Xabier Kerejeta (Difusio Zerbitzua)



ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu gama berezia

☎ 199300 - 199330

Faxa:199270

Intereseko Telefonoak

Gure korrespontsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduene Ayuso160615

Lazkao:

Mari Joxe Madariaga.160282

Legerreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua880998

Iñaki Leturia882679

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:

Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduene Albizu801351



Errezeta



Martin Gurrutxagak emana
Egoki Jatetxea
Beasain

LEGATZ KOKOTXAK ANGULEKIN

Osagaiak: 24 kokotxa fresko, 200 gr. angula, 2 baratzuri, irina, arraultza eta oliba olio.

Kokotxak garbitu, irin eta arraultzetan errebozatu ondoren olio berotan frijitzen dira. Beste zartagi ba-

tean, olioia eta baratzuria xerratan ebakita jarri, hauek kolorea hartutakoan angulak gehitu eta egiten utzi.

Angulei olioia kendu eta plater baten erdian direla, kokotxak buelta guztian jartzen dira. On egin deizuela!



Bota bertsoa



Jon Lasa
Gaia: Ba dator udaberria
Doinua: "Potajearena"

Hiru hilabeteak hor negu beltzean elurra ta euria denbora luzean (bis) egun ilunak utzi nahiean atzean zer izango ginake gure eskasean udaberri goxoa iritsi ezean. (bis)

Sortzen dituzulako hamaika amore sortzen dituzulako milaka kolore (bis) zelai, mendi, txoriak, zuhaitz eta lore zu iristean dena jartzen da dotore udaberria zuri agur eta ohore. (bis)

GARDEN CENTRO GANBO

ESKEINTZA BEREZIA: Magnoliak eta Banbuak

Neurri eta prezio guztietako Magnoliak (Metro batetik, sei metrotara)

OLABERRIKO MERKATAL UNEA

☎ 88 22 55



Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

□Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

□ "Temas clave de Salvat" delako bilduma osatu nahi nuke. Zenbait ale erosiko nituzke edo beste zerbaiten trukean hartuko. Vega, Ordizia, 887188.

□Renault 6 (8310-M matrikuladuna) salgai. 884639 tfnoa.

Lana

□Etxekoandre beasaindarra prest, etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko, bulegoak garbitzeko edo jate-txean lan egiteko. M^a Jesus, 887097.

□Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

Etxebizitzak

□Donostiako Grosen lagun bata behar da pisua osatzeko. Gauez deitu 291110 tfnora (Jontxu).

□Beasainen pisua salgai, Porterian, egutera. 3 logela, egongela, bainu 1 eta sukaldaria. Dei 160007 (Arantxa Gorostidi)

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Apirilak 6, Maskarada taldearen 'Ernesto izatearen garrantzia' lana (euskaraz), Usurbe Antzokian 20.00etan.

✓ Ordizia:

Martxoak 24, 'Tarde de sabado' antzezlan eskainiko du Trapu Zaharrak taldeak, Herri Antzokian, 22.15etan.

BERTSOAK

✓ Segura:

Martxoak 31, J. R. Gerricko, Xabier NARBART, Mikel Aranburu eta Igor Egu-renekin bertso-afaria, Segurako Elorri Elkartean, 20.30etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 24, "Escape de Absalom", 10,15.

Larunbata 25, "El fugitivo", 5,00etan. "Los inmortales III", 7,30-10,15.

Igandea 26, "Escape de Absalom", 7,30-10,15.

Astelehena 27, "Escape de Absalom", 7,30-10,15.

Zine Kluba:

Martxoak 30, 'Reservoir

dogs', Usurbe Antzokian, 20.50etan.

"Reservoirs dogs"

Q. Tarantino (EEBB, 1991)

Tarantinok argindar fusible guztiak erretzeko moduko lehen filme bat erakusten digu, trumoiaren antzera lehertzen den umore beltz ikutuarekin, ikuslea harri eta zur utziaz bere irudien indar, bizitasun eta bortizkeria gordinarekin.

Hasiera batean antzezlan kutsuko lan bat iruditu arren, filmearen plangintza oso bestelakoa da. Izan ere filme honen gakoa eta erakargarritasuna, bere egituraketa zuhurrari esker sortutako giro berezian eta barneratzen duen ingurune itxi bezain itotzailean aurki dezakegu; bertan pertsonaiek beren kezak, noraeza, beldurra, amorrua, mesfidantza, azken batean bere sentimendurik bortitze-nak askatuz.

Aipagarria da plano garden eta xumearen bidez lortutako emaitzak (zine beltzean ohikoa den erretorika astunetik urrunduz), aktore/aktorea talde bikainarekin egindako zuzendaritza lan dotorea ahaztu gabe.

✓ Ordizia:

Martxoak 28, 'Haur lehoia' filmea euskaraz.

Apirilak 5, 'Alargunaren gailurra' filmea euskaraz.

Larunbata 25, "Rio salvaje", 10,45.

Igandea 26, "Bastian", 4,45. "Rio salvaje", 7,30-10,15.

Astelehena 27, "Rio salvaje", 7,30.

Ostirala 31, "Pasion turca", 10,15.

Larunbata 1, "Priscilia", 7,30-10,15.

Igandea 2, "Memorias de un hombre invisible", 4,45. "Pasion turca", 7,30-10,45.

Astelehena 3, "Pasion turca", 7,30.

MUSIKA

✓ Beasain:

Martxoak 25, Othaitz donostiarrak kantautorearen kontzertua, Aterpe Tabernan 23.00etan.

BEASAIN



BI AKORDEOI

AITOR FURUNDARENA
IÑAKI ALBERDI

Martxoak 31, Aitor Furundarena eta Iñaki Alberdi soinu-joleen kontzertua Udaletxeko Batzarre-Artoan, 19.30etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

✓ Idiazabal:

Apirilak 6, Felipe Uriarteren "Baghirathi III" emanaldia, Kultur Etxean 8etan.

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiaketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jaietako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Seinaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.

Creativos

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

✓ Ordizia:

Martxoak 29, Amerindia zikloaren barruan, 'Ecuador: por la tierra', 19.30etan Barrenan.

✓ Olaberria:

Apirilak 6, 'Peru' eta 'Nordkapp' diapositiba emanaldiak, Kultur Etxean 19.30etan, Kepa Gonzalez eta Gema M. Arrugaetaren eskutik.

✓ Zaldibia

Martxoak 24, Felipe Uriarteren "Baghirathi" emanaldia, Kultur Etxean 7.30etan.

Martxoak 30, Batis Goi-koetxearen "Aizkorri mendilerroa neguan" diapositibak, Kultur Etxean 7.30etan.

HITZALDIAK

✓ Beasain:

Apirilak 3, 4, 5, eta 6, Kutxaren Aula 3-ek antolatuta, 'Bizitzari osasuna gehitu' zikloa, Udaletxeko Batzarre Aretoan, 17etan.

Apirilak 5, Osasunerako hezkuntza ikuspegitik ugartz minbiziaren detekzio azkarrari buruzko hitzaldia Loinazpen, 16.30etan.


✓ Lazkao:

Martxoak 29, 'Erlea: filosofia, barneko funtziona-

mendua eta gaisotasunak' hizpide hartuta, Jaxinto F. Setien eta Pello Joxe Aranbururen eskutik hitzaldia, Udaletxeko Areto Nagusian, 19.30etan.

Apirilak 5, 'Esaera zaharrak, atsotitzak, bertsolaritzan'. Lazkao Txikik erabilitako hainbat esaera oinarritzat hartu eta bertsolaritzan betetzen duten funtzioa hitzez eta kantu bidez agertuko dute, Emeterio Sorazu, Joan Mari Lekuona, Iñaki Murua eta Andoni Egañak, Udaletxeko Areto Nagusian, 19.30etan.

ERAKUSKETAK



✓ Beasain:

Martxoaren 26ra bitartean, Euskal Herriko musika-tresna zaharren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Apirilaren 7ra bitartean, Esther Ibeasen erakusketa Aterpe Tabernan.

Martxoaren 31tik apirilaren 9ra, Martin Mujikaren argazki erakusketa Usurbe Antzokian.

✓ Ordizia:

Martxoaren 30era bitartean, Jose Mari Telleria eta Lake Oiarbideren argazki erakusketa, Barrenan.

Apirilaren 1etik 18ra, Euskal Herriko zestogintza erakusketa Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 26, Ormaiztegin izango den eskolarteko martxa erregulatura mendi-irteera.

Apirilak 2, Urederra-Bakedano.

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 26, Ormaiztegin izango den eskolarteko martxa erregulatura mendi-irteera.

Apirilak 2, Santa Ageda (Arrasate)-Arlaban.

Idiazabalgo mendizaleak:

Apirilak 2, Kanbo-Ursua.

GOARDIAKO BOTIKAK

Martxoak 24: Cuesta; 25-26: Lournaga; 27: Arriola; 28: Urbizu; 29: Atorrasagasti; 30: Azpilikueta; 31: Jauregi; **Apirilak 1-2**: Azpilikueta; 3: Lournaga; 4: Cuesta; 5: Arriola; 6: Urbizu.

Ordiziako azoka



Landareen garaia

Martxoko hilberarekin batera, landareak asko saldu ziren asteazkenean. Tomate landarea esaterako, 30-35 pezetan saldu zen. Udaberriarekin balkoietakoreak pizteko garaia ere badela eta, geranio eta 'hiedra' landarak 250 eta 275 pezetan zeuden salgai. Bestalde, San Jose pasatuta, ez zen hainbeste arku-me izan, 147 guztira. Gehienak 500ean saldu ziren, batzuk baita merkeago ere. Zizak, han-hemenka, oso sakabanatuak, 2 kilo eskas bildu ziren guztira, kiloak 16.000an.

Bertako barazkietan, letxuga moratua izan zen nobedade (50 pzta.n). **Kanpokoe-tan** berriz, patata berria 160an, saldu zen; limoiak 200ean eta piper berdeak 325-375ean.

Arrainetan: antxoak 780 pezetan; sardinak 530ean; txitarroa 620-890ean; legatza 2.200ean; txipiroiak 1.620 pzta.n; bakailua 1.250ean; itsasoilarra 1.250ean eta angulak 14.500ean.

Ana Irastorza

IKASTEK

AKADEMIA

Maila eta arlo guztiak

☎ 16 01 20

Joan de Iturralde, 5

BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA

☎ 16 07 07 OLABERRIA



KORRIKA AMAIERAKO AUTOBUSA antolatu du Goierriko Korrika batzordeak. Autobusa Lazkaoko plazatik irtengo da goizeko 10etan, Ordizian estatutik eta Beasainen ere estatutik. Autobus tikeak Lazkaon Gerriko tabernan eta euskaltegian eskura daitezke; Ordizian Koiote eta Pottolo tabernetan eta eskaltegian; Beasainen Ñañarri eta Basakana tabernetan eta euskaltegian.

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN. Urtean zehar euskaraz ikasten ahalegindu eta udan hori pixka bat sakondu nahi luketenentzat antolatzen dira. Uztaila, abuztua eta iraila dira egonaldi horietako izendatutako hilabeteak. Familiari 60.000 pezeta ordainduko zaizkio hartzen duen ikasleko. Familiak berak aukeratuko du ikaslea neska ala mutila izango den. Interesaturik dagoe-nak martxoaren 31ra bitarteko epea dauka eskaerorria betetzeko.

LOINATZ JAIETAKO EGITARAUAREN AZALA aukeratzeko lehiaketa antolatu du Beasaingo Udaleko Kul-

tur Batzordeak. Edozein eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak 45 x 65 zm. izango dira. Gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da, eta lanetan 'Beasain, 1995eko Loinatz-Jaiak. Maiatzaren 26tik ekainaren 4ra' azaldu beharko da. 50.000 pezetako sari bakarra emango da. Lanak Udaletxeko Kultur bulegoan aurkeztu beharko dira, apirilaren 7ko eguerdiko 13.00ak baino lehenago. Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Honekin batera, kartzal itxi batetan partehartzailearen datu pertsonalak eta N.A.N.-aren fotokopia bidaliko dira.

GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herritako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAK, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 88 96 12.

IBAI - ONDO



ZURGINTZA HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN

Publizitate modulo hau

6.000 pzta. kostako zaizu

10 edo gehiagotan eginda **5.000 pzta.**

GOIERRITARRA



88 96 12

Amagoia

Diseinu Grafikoa
eta
Publizitatea

PLA/ DOMINGO UNANUE Zº 2 TEL 88 10 06
20.240 ORDIZIA (GIPUZKOA)

DISEINU GRAFIKOA

Imagin korporatiboa / kartelak / txartelak
Posterrak / Gonbidaketenak / Anuntziok / Muestrarioak
Folletoak / Katalogoak / Kalendarioak / Portadak
Pegatlinak / Postalak / Jatehonetako kartak....

MARRAZKIAK

Marrazkiak teknika desberdinetan
Marrak oso bereziak aerografaz eginak

ARGAZKI ERRETOKAJEA

Argazkiak berritzea eta efektu bereziak

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfnoa: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfnoa: 88 80 29
BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Txinoak 0 - Odolkiak 2

Urtebete inguru izango da, Beasainen jatetxe txino bat zabaldu zutela. Ohi duten moduko izen kursia jarri zioten: "Lorategi zoriotsua" edo antzeko zerbait, gaztelaniaz noski. Haien plater ospetsu bat bezala, gazi-gozoa izan zen nire orduko sentimendua. Gozoa, horrek "hiriago" bihurtzen zuelako gure herria, gu denok kosmopolitago, eta nazioarteko joera zabalagoen artean egin ahal izango genuelako aukera. Gazia, berri, kontrako guztiagatik: gure nortasuna galtzen ari ote garen beldurra, moda berriei itsu-itsu segitzearen txepelkeria eta, batez ere, neure artean errepikatzen nuena: "ondo hobea dek ba gure sukaldaritza!".

Izan ere, aitortu behar dut, niri ez zait gehiegi gustatzen janari txinatarrak. Eta hala ere, bigarren aitorpena, behin batean joan nintzen jatetxe horretara. Eraman egin nindutela esan beharko, zehazkiago. Eta, itxura guztien arabera, jende askotxok jokatu du nire antzera, zeren, hasieran bete-betirik izaten bazen ere, urtea bete baino lehen itxi baitute.

Bareak ez gara, hortaz, uste bezain urbanoak. Gure txokotan bertan goxo: sagardotegian, "Izal" go gaztaia jaten. Hala ere, pauso bat eman beharko genuke aurrerantz: txinoek konkistatu ez bagaituzte, konkista dezagun guk mundua, eta esportatzen hasi geurea: Beasaingo odolkiak.

 Xabier Mendiguren

Garizuman bijiliarik egiten al duzu?



Miren Mujika
34 urte, etxeakoandrea
beasaindarra

Ez, ohiturarik ez daukat, nahiz eta amak erakutsi. Txikitan, orduan egoten ziren onenak amaren izkutuan jaten genituen txorixo ogitar-tekoak.



Edurne Albisu
24 urte, irakaslea
beasaindarra

Etxean errespetatu egiten da, amak ostiraletan arraina jartzen du. Baina nik ez diot kasu handirik egiten, noiz-behinka txorixoa jaten dudanean, amak atentzioa deitzen dit.



"Triku" Agirrezabala
29 urte, musikaria
lazkaotarra

Ez, egun hauetan berdin-berdin jaten dut haragia. Aiton-amonak bizi zirenean errespetatzen genuen, baina gaur egun etxean ez daukagu ohiturarik.

Bitxikeriak

Aizkorriko Gurutzea, sesioen iturburu

Aizkorriko gailurrean Santo Kristoren ermita dago eta bertan gurutze erromaniko ederra. Esaten denez, gurutzea ustekabeaz azaldu zen mendi-puntan. Ditzosozko gurutze horren kontura zegamarrek eta arabarrek istilu latzak izan zituzten. Aurrena zegamarrek beren herrira jeitsi zuten, baina biharamunean Aizkorri zen berriro. Arabarrek ere bereganatu zuten baina berriro Aizkorriainoko bidea egin zuen gurutze misteriozkoak. Borrokak areagotu egin ziren. Eztabaida ugariren ondoren, auziaren soluzioa: gurutzea Aizkorri utzi eta hurrengo goizean zein aldetara begira zegoen ikusiko zuten: Araba aldera begira?, arabarrena orduan; Zegama aldera?, zegamarrena. Zorteak, edo haizeak, edo esku misteriozko batek gipuzkoarren alde erabaki zuen. Geroztik, Aizkorriko gurutzea goierritarrena da.

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzt. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



* HORTZEN EDERKUNTZA

* HORTZ EZARKETAK

* MATRAIL-HEZURREKO
ARTIKULAZIOAREN
TRATAMENDUAK

* PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83



Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)

**“Zenbat eta
pertsona
gehiago sartu
sarean,
orduan eta
mahuka
handiagoa
izango duzu,
eta orduan eta
diru gehiago
irabaziko
dugu”.**

Krisi ekonomikoaren sega bazter guztietan ebaki eta ebaki ari den honetan, ez nuen asko pentsatzen inor negozioak oparitzen ibiliko zenik. Horregatik edo, nolabait-eko mesfidantzaz onartu nuen aurreko batean ezagun baten negozioetaz hitzegiteko gonbitea. Berehalaxe jarri zidan arbi-hondoa muturren aurrean: aste-burua Badalonan, hotel eder batean, igarotzeko nengoen gonbidaturik, negozioen gaineko zenbait hitzaldi entzuteko:

“Zein da ba negozioa?” botatzeko astirik ere ia ez zidan eman, konturatzerako astakilo tontolio honen bizimodu exkaxaren atze-aurreak gogor astintzen baitzituen hizketan. Itxura zenez, argi eta garbi zekusan gure belaunaldiko jende gehienaren atarramendua: 20 urte inguru zaldaleak irabazten, lanak itota, diru pixar batzuen truke. Etxetik lanera eta lanetik etxera, eguneroko presondegi horren sufrikariopean, bizitzan apenas pozgarrik izan gabe. Hezi gaituzte, hezi (esaten zidan), bizitza monotonoa eramaten. Baina bizitzan, adiskide (jarraitu zitzaidan), adore eta kuraia behar dira errutinen kontra joateko, bestela ipuineko igel haiena gertatuko zaigu. Ba omen ziren behin pozadera baten hondoan igel batzuk, hango bizimodu iluna besterik sekula ezagutu ez zutenak. Etsirik bizi ziren gehienak, batzuk, hala ere, elkarri galdetzen omen zieten zer bizitza-mota izan zitekeen kanpokaldean, beraiena baino alaiagoa izango ote zen amestuz. Pozaderaren hondotik aho-rainoko saltoa egin beharra zeukaten argitako bizitza eza-gutzeko, baina horretarako ausardia behar zuten. Ziur nago igelak baino gehiago izango zarelara, eta monotoniatik askatuko zaituen negozio honetan esku hartzeko behar hainbat ausardi edukiko duzula. -Esango al didazu behingoz zertan den negozio hori? - galdetu nion hase-rekor.

Kostata, hasi zitzaidan negozioari buruzko zenbait zertzelada ematen: **Network (sare)**

Ez nau sareak harrapatu

-sistiman oinarriturik dago gure hau; zenbat eta pertsona gehiago sartu sarean, orduan eta mahuka handiagoa izango duzu, eta orduan eta diru gehiago irabaziko dugu. Nik behin berriro: -Esango al didazu behingoz zertan den...? Negozio-elkarte hori salerosketen munduan dabilela erantzun zidan. Kontsumo-gai ugari saltzen bide ditu, hasi orratz ziztrin batetik eta, janzteko edo elikagaietatik paseaz, irudika dezakezun autorik xoragarrieneraino. Gairik gehienak elkartekide berei saltzen zaizkien arren, salmentak ugariak bide dira elkartetik kanpo eta, antza, munduko nazio askotan hedaturik dago sareak. **Nire lana negozioan, hasteko, 6 elkartekide berri geureganatzea izango zen, horretarako negozioaren pagotxaz konbentzitu beharko nizkiekeela.**

-Negozio hori ez da niretzat egiten -bota nion bapatean. Ni ikuilutik lanera eta lanetik ikuilura dabilen astotxoaren pareko nauzu, ikuiluko festan (literaturan-eta pittin bat arituta) lanlekuko penak eta nekeak ahazten ahalegintzen naizela. Eta berak derrepentean: ez al dakizu zein den nobel-saria lortutako hark aipatzen zuen gizartearen gaitzik handiena? Nik, nire ez jakinean: gerrak al dira? gosea, agian? izurritea ote? gaixotasunak, beharbada? Ezetz eta ezetz berak eta azkenik: emaidazu ba gaitz beldurgarri horren berri. Ziurtasun handiz erantzun zidan: gizarteak bere buruarengan konfidantzarik ez izatea dela. Ez al da hori zure kasua? Horregatik ezetz esaten diozu negozio honi eta... “nik horretarako baliodut” esan behar diozu zure buruari. Pentsatu gainera, denbora laburrean bizitza guztirako dirua lor dezakezula negozio honetan. Salto ttiki bat besterik ez duzu egin behar zure bizitzan, pistinako ertzean zeuden igel

haiek egin behar zutenaren antzekoa. Orduan nik: igelak berriro? Eta berak: bai moteil. Hantxe zeuden, pistinako ertzean, denak uraren gozoa beren gorputzetan sentitu nahian, denak igerilari onak izanik gainera, baina ausardia falta (beren buruengan konfidantza falta) eta hantxe gelditu ziren kieto, inor uretara bota gabe. Igelak baino gehiago izango zara zu, ezta?

Tximistaren abiadan aberastu nahi zen nire solaskideak Banco de Españako presidente ohia den Mariano Rubio ekarri zidan gogora. Nire mintzakideari esan niezaiokeen gure gizartearen gauza onerako Rubiozale gehiegi ikusten dudala hedaturik eta, nire ustez, kulturak diruaren bidetik ez baizik beste errepide batzutatik ibili beharko lituzkeela. Baina batez ere, igelen ixtorio-mixtorioei segida emanaz, eskain niezaiokeen beste batrazio haren nire bertsioa: ordurako ez oso gazte eta berde ez zen igeltxo hark amets egiteari ekin zion. Ametsetan txiki eta gauzaez ikusten zuen bere burua eta handitzea beste asmorik ez zerabilkion. Lortu zuen handitzeko modua eta hilabete barruan lehen zen halako bi bihurtu zen. Ez zegoen konforme oraindik tamaina horrekin eta gehiago puztearatu zuen. Puztu eta puztu baina gehiago nahi. Bi urte pasa zirenerako bere handitze hura ezin zuela geldierazi konturatu zen. Ia bere larruan kabitu ezinik zegoen igela, lehertzeko zorian, eta guztiz larritu zen orduantxe. Baina, ordurako erremediorik gabe, eta halako batean, oraindik ametsetatik esnatu ez zela, bere barrenak gehiago eman ezin eta zart egin zion larruak, gorputza mila puska eginda airtan galdu zitzaiola.

Horiek guztiak kontu niezaizkiekeen solaskideari baina niri, igelei bezala, ausardia falta eta, halakoak ixiltzen nituen bitartean, hauxe besterik ez nion nire buruari errepikatzen: **-Negozio hori ez da niretzat egiten.**

Enirio Aralarko txabolen erabilerarako araudia

Enirio Aralar Mankomunitateko zerbitzu teknikoak amaitu berria du urteetan zehar hain beharrezkoa ikusi den Txabolen erabilerarako arautegia. Lan honi, Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak lehenengo onarpena eman berria dio (95-II-27) eta orain 30 egunetan erakusketarako jarri da Mankomunitatean parte hartzen duten udaletxe guztietan.

Mendeetan zehar Enirio Aralarreko lurretan garatutako artzantza izan da inguruko herrietako hainbat sendien ogibide. Artzai hauen etenik gabeko mendetako jardunak moldatu du lurralde horietako ingurunea euren bizitzara, eraikuntza, saroi, larre eta bideak eginez. Txabola hauen erabilera eskubideak nolabait normalizatu, gaur egungo ongizate baldintzetara egokitu eta ingurugiroarekiko begirunea ziurtatzeko asmotan landu da Enirio Aralarreko Txabolen Araudia.

Araudi hau borobildu eta idatzi ahal izateko urrats ugari eman behar izan da aurretik. Aranzadi Zientzia Elkartek 1.982an egindako "Enirio Aralarreko Antolaketaren Azterketa" eta Iñaki Aizpuruk 1.986an egindako "Enirio Aralarreko Ekintzen Egitasmoa", bi lan hauek izan dira Enirio Aralarreko baliabide eta ekintzen antolaketarako oinarri nagusi.

Hasera batetan ezarritako helburuak aldatu gabe iraun dute urte hauetan: baliabide naturalen jarraipena ziurtatzea, ondare arkeologiko eta etnografi-

koaren kontserbazioa, artzaien bizitzeko kondizioen hobekuntza, lurralde honen baloreak eta erabilera desberdinak bateragarri egitea, etab. Helburu hauek lortzeko urrats sendoak eman dira, horretarako ezinbestekoa izan delarik inplikaturik dauden estamentu eta pertsona desberdinen artean eman den komunikazio estua.

Txabolen Arautegia egiten hastera koan, Mankomunitateak garbi dauka jarraitu beharreko erizpidea: orain arteko erabilerak sendotzea, bai artzaiei eta bai Mankomunitateari dagokien interesak bermatuz; artzantza mantendu eta indartu nahi da baina Aralarrek dauzkan gainontzeko baloreak ere errespetatuz. Araudi honen idazlana ez da lan xamurra izan, hasera batetan kontuan izan ez ziren arazo eta ezbehar ugari sortu bait da bidean; zailtasun hauek gainditzeko, artzantzak izan duen eboluzio historikoaren ezagupenera, Mankomunitatearen Sorrera Estatutueta, Arau Foraletara edo inda-


rrean dauden beste batzuetara jo behar izan da.

Araudi honek funtsezko zenbait arazoei erantzuten die: Txabola, erabilera ezaugarri eta baldintzak, larreak eta euren erabilera, Txabolaren eta ingurunearen mantenua, aktibitatearen heredentzia edo eskualdaketa, etab. Araudia honako puntu hauek jarraituz egituratu da: eraikuntza desberdinen definizioa, Txabolen ezaugarri eta erabilera baldintzak, emakida eta honen xehetasunak,

kanonaren ezarpena, kontzesiodunaren eskubide eta betebeharrak, eta azkenik, zigor jardunbidea.

Txabolen Araudia den dokumentua sail desberdinetan banatuta dago. Hasiaran, araudia bera sartu da, bai euskeraz eta bai erderaz. Ondoren, Txabolaren inbentarioa dago: ezaugarriak, kokapena, argazkia, solairu-planoa eta dagokion larrea. Atzekaldean 1:10.000 eskalan dauden 3 mapa gehitu dira: Txabolaren katalogoa, larreen banaketa, eta baimenduriko ibilgailuen irispideei dagozkienak. Inbentarioan erabileraren bat daukaten eraikuntza guztiak jasota daude. Honela, artzai-txabolak 47 dira, aterpe baimena dutenak 6, eta bestelako egoera ez-ohizkoan dauden eraikuntzak 8 dira. Eraikuntza guzti hauek hemendik aurrera izan dezaketen erabileraren xehetasunak aipaturiko araudian zehaztu dira.

 **Miren Larrea (Ekos)**



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxa: 880872. 20249

ITSASONDO

Ba al dakizu...?



GOIERRITIK PASABE- RRI DA KORRIKA 9.a.

Lekuko, eramale eta erosleen zerrenda hauxe izan da: **Ormaiztegi:** Irizarreko langileak, San Andres ikastetxea, odolkgileak, Barduliarrak eta HB. **Beasain:** Ai Geala, Lizeoko junta, ikasleak eta Geurea Ikastola, Emakume taldea, Kimuak, EHE, GOT, HB, Udaleko Euskara Batzordea, Udal Euskaltegia, Istitutuko ikasleak, Eun eta Estanda enpresak, Porteriako auzo elkarteak eta AEKko ikasleak. **Lazkao:** Maizpide (2 km.), San Benito Ikastola, Gerriko, Gestorak eta HB. Eramaleak: Marron, Felipe Barandiaran eta Gazte Asanblada. **Ordizia:** Rugby, Logos, Sukia eraikuntzak, Hitzaro, Istitutua, Goierri, Ikastola, Hezi, HB, EA, Gazte Asanblada eta AEKko ikasle-irakasleak. Eramaleak: Zaldibiko ikasleak, Milagrosa, Urdaneta eta Jakintzako ikasleak, Izaro Iraeta, Maria Otegi, Julio Goitia eta Patxi

Prodema lantegiak. Eramaleak: Asier Zinkunegi eta Jose Ramon Sorroiz.

ORDIZIAKO UDALAK ETXEGARATE BIKOIZTEA


eskatu dio Diputazioari, bere azken Udal Plenoan HBk aurkeztutako mozioa (PSOEek ezik) ahobatez onartu ondoren. Izan ere, N-1a bikoizteko obrak ez dira inoiz bukatzen, lehentasuna zeukatenean bai errepide plan ezberdinetan eta baita Goierriko Plan Estrategikoan ere. Aurtengorako behintzat diru-aurrekonturik ez dio ezarri gure errepideari Aldundiak eta hori salatu nahi izan da. Indarrean dagoen Errepide Egitasmoan, 1999rako bikoizketa egin da egotea aurreikusten da; bien bitartean, Idiazabaldik Etxegarate gaina bitartekoa bikoizteko dago. Mozio hau Goierriko beste zenbait udal-letan ere eztabaidatuko da eta Goierri ere eskatu zaio eskualdeko iri-

Zubizarreta.

Itsasondo:

Udaletxea eta Jaso. Eramale: Maite Amundarain alkatesa, Jasokoak, Eskolakoak, Mikel Mendizabal, Arbelaitz elkarteak eta IGA. **Legorreta:** Udaletxea, Herri Eskola, HB, Eredu, Goierri eta

tziak kontutan hartuak izateko ekimenak bultza ditzala. 87tik aurrera egin izan dira hemendik obrak bukatzeko esijentzia eta erreklamazioak. Hori lortutakoan, atzeratzen bada ere, Goierri ezezik, Gipuzkoak irabaziko luke, dirudienez.



CAF-EK IRABAZIAK

94AN ere: 1.802 milioi pezeta irabazi zituen, hau da, aurreko ejerizioan lortutakoa baino %7 gehiago. Hirugarren urtez hobetu egin ditu emaitzak. Eskarien erdia kanpoko merkatuetatik etorri da eta, bestalde, 1.100 milioi baino gehiago inbertitu zituen iaz.

OBRA-LANAK GOIE-

RRIN: Lazkao Zubierreka gune industrial urbanizatzeko arazoa soluziobidean dagoela dirudi. Udalak 3 iturri ere egin behar ditu Lazkaomendin. Horrez gain, 12 etxebizitza berri eraikiko dira Elozegi kalean eta ho-

**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

XerLo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 16 11 05 **BEASAIN**

Jon Decoración
ORDIZIA

Goierri 15 ☎ 88 17 08

Volkswagen
taldea

ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**



Lanak bukatu bitartean, Osasun Etxean kokatua dago Legorretako Udaletxea.

rrekin Iturgaitzagako urbanizazio obrak bukatuko dira. Lazkao eta Beasain bitarteko espaloiak zabaltearen obrak ere amaitu dira eta bide onetik doaz hortik Malkaskorainoko espaloia eraikitzeke gestioak. Bestalde, geroz eta hots gehiago dabilta, Oria ibaiaren saneamendua epe batean egingo omen da. Zegamatik hasita Itsasondo bitartean isurtzen diren usuri eta gorotz-ur zikinak Itsasondon jarriko litzatekeen depuradora batetara joango lirake. Proiektu honek Uren Kontsorzioak emango lituzkeen 4.000 milioiko aurrekontua izango luke.

ZUMARRAGAKO UDALAK 2 milioi eta gehiagoko erreklamazioa egiten dio oraindik Ezkio-Itsasokoari, Ezkioko industrialderako ur-hornikuntza sare berria ezartzeari zegokiola eta. Ezkioko Udalak obren balorazio ezberdina egin zuen Zumarragakoarengandik eta ia 3 milioi ordaindu zizkion.

LEGORRETAKO UDALETXE BERRIAN, orain eraikitzen ari direnaren fatxadan, Koldobika Jauregiren eskultura bat ezartzea onartu du bertako Udalak. Arte obrak zuhaitz baten itxura izango du, haritzekoa izango da, altueran 7,5 m. eta zabaleran 16 m. izango ditu eta aurrekontua ia 4,5 milioi pezetakoa izango da. aleran 16 m. izango ditu eta aurrekontua ia 4,5 milioi pezetakoa izango da.



MUTILOAKO TROIA MEATEGIA 93an itxi zen, zenbait urtetan martxan egon ondoren. Orain, berriz, bertako Udalak, Gabiriakoak eta Jaurilaritzak parte hartu dute, ingurugiroa zaintzeko asmotan eta Exminesak iparreko minaren sarrera eta bi tximini tapatu eta txukundu behar izan ditu, obren lehen fasea horrela amaituz.

KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO Goierriko Bulegoak (Lazkao, Beasain eta Ordiziatik ibiltaria da) kanpaina bat bultzatzen ari da kontsumitzaileok geure eskubideak erabil ditzagun. Jendea informatzera inguratu ohi zaio bere arduraduna den Beatriz Iñurrategiri, keiztara baino gehiago.

GOIERRIKO GAZTE ASANBLADEN JAIA giro ederrean ospatu zen martxoaren 18an Lazkaon. Egun guztian zehar Goierriko gazte ugari gerturatu ziren bertara, goizetik gauera ospatu ziren ekitaldietan parte hartzeko.

Linterneritza
Gasa
Berogailuak
BAKARRIK

☎ 88 07 65
908 671542

Igartza Oleta 10
BEASAIN

Sagardotegia
 **aulia**

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA



LADA

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfnoa: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

MIKEL GARMENDIA AKTORE ORDIZIARRA OLATU ONEAN "WINDSURF" LARI:

"Goenkale-rekin derrepente konturatu ginen 'bonba' bat genuela"

Aurreko asteazkeneko perian topatu genuen. Ordiziako herria asko maite duela aitortu digu; konturatzen da ordiziarrek ere maite dutela eta "nirekin zerbaiteko kontatu nahi badute, bada, prest nagoela etortzeko edozein gauzetarako", esanez agurtu gaitu, hurrengo elkarrizketa eman ondoren.

Herri kuttuna duen Ordizian sortu zen Mikel Garmendia aktore famatua ("Kutturru" bezala ezaguna lehenik), orain dela 50 urte; "Beko Etxe"-n hain zuzen, eta alboko frontoian, arboledan eta Txakurtxulon bota zuen haurtzaroa. Bere ikasketak egin eta 30 urte arte jaioterrian bizi izan zen, CAFen eta etxeko "Cantabrico" arrandegian lan eginez. Bertako Errondailaren sortzaileetakoa, antzerkirako eta arteengana-ko zaletasuna betidanik izan du Mikelek: "Txikitatik sentitu dut erakargarri mundu hau, halako deiadar bat egiten zidan, baina ez nuen betarik izan sekula, salbuespen bat ezik: 18 urterekin, lagun kideko taldetxo batekin halako obra pare bat montatu nituen, afizionatu mailan. Hor bukatu zen gure abentura guztia". Orduko "Etxezarreta"-n (gaurko Herri Antzokian) egin zituzten zenbait emanaldi: Jon Etxezarreta (apaiza dena), Luxio Lekuona, Josina-



zio Mujika, Juanita Lasa, Senperena ahizpetako bat, e.a.-ek. Kinada bakarra hura izan zen.

Berandu eta atipikoki hasia

Ezkundu eta seme-alabak zituela Donostiara joan zen bizitzera. 37 urte-rekin beajante zebilen eta, halako batean, kotxe barruan zegoela entzun zuen Jaurilaritzak, Kultura sailaren bidez, Antzerki Eskola (Antzerti) irekitzeko asmoa zuela, deialdia bazela. Hurrengo egunean bere buruari esan ziona: "Hi Mikel, bizi guztian egon haiz holako zerbaiten zai". Aurkeztu zen eta, buru belarri sarturik, gaur arte hor dabil. Aktoretzan berandu hasi, eta hori gutxi balitz, hurrengo urtean legionella birusak jo zuen. Hiltzeko zorian egon zen,

kilo dexente galduz. Flakeziatik indarrak atera eta gaitzari buelta ederki eman dio.

"Ama begira zazu", filmeak...

Garmendiatarra ez da sekula antzerki talde fijo bateko partaide izan, librea eta kontratatua baizik, bai antzerki, zine edo telebistan. Zaila bazen ere, "Ama begira zazu" iritsi arte, "tarrastakata, tarrastaka, beti lortu izan dut nire ogibidea, hasiera-hasieratik. Agian, nire adineko aktorerik ez zegoelako izango zen, pertsona edadetu baten papera egiteko orduan bakarrenetakoa nintzelako. Hor bentaja izan nuen", baina horrezaz gain balioa aurkitu diotela-koan dago Mikel. Ikuskizun umoretsu hark ate asko zabaltu zituen.

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44

ORDIZIA



Ordu ezkerro gauzak nabarmen hobetu dira euskal antzezleentzako. Pentsa, 24 pelikuletan parte hartu du ordiziarak, paper handiago edo txikiagoetan: "Hamaseigarrenean aidanez", "Kareletik", "Akelarre", eta batipat azkene-koa, "Maité", ezagunenak.

"Maité" maitea

"Kareletik"-en "Balantxas" pertsonaia saritu izan zioten, baina ez dago askoz disgustorago "Maité"koarekin. "Maité"ren atzean Carlos Zabala eta Eneko Olasagasti zuzendariak daude, bere garaian hain ospetsua suertatu zen 'Bi eta Bat' en zuzendariak; halako zor bat banuen beraiekin, lagunak dira gainera eta gure promozio-aktoreak. Eskeintza honen denbora berean izan nuen beste bat, 'Amaren etxea' seriea egiteko, hobeto ordainduta. Baina Kuban pelikula egitea nahiago izan zuen.

Karibeko uhartea nahiko idealizatu zekukan. Kubatar asko ezagutzen ditu eta bazeukan ilusioa hara joateko. "Al-derdi horretatik ez nau batere dezep- zionatu, ez dut kolperik hartu negatibo- ki. Hango egoera ez da ona, denok da- kigu hori. Baina lan-kontuan jende zoragarria aurkitu nuen, profesional

peto- petoak, oso aktore, tekniko, e.a. onak. Duintasun izugarrikoa eta espe- rientzia punttua daukate gure aldean, oso lagun onak dira eta haiekin lan egitea oso erraza da. Espektatiba han- diak eraman nituen, baina uste baino pozikago geratu nintzen". Filman "Obdulio" beltzarekin izandako "tira- birak" gidoiak agindutakoak dira, Idel- fonso Tamayo izena du aktoreak eta oso erlazio onak mantentzen ditu oraindik harekin.

Goenkale: fenomeno soziala

Kuban zegoela "Goenkale"ko "Joxe Mari"ren papera eskeini zioten he- mendik. "Ni bildurtu egin nintzen, ha- lako gauza erraldoia, hemen sekula egin ez zena, 200 kapituluko... Hau zer izan behar da, non sartu naiz? Baina ezetzik ezin nuen esan, hemendik bizi naiz, esplikatuta iezaiozu zure etxe- koandreaki beste lan bat utzi duzula...! Baietz esan, etorri eta bildurrak joan zitzaizkidan: derrepente konturatu gi- nen 'bonba' bat geneukala eskutan". "Lehergailua" hor dago eta ia fenome- no soziologiko bat bihurtu da.

Aipatu bi obrak direla eta, jende ba- tek gehiegi erlazionatu ditzake bere pertsona eta pertsonaia. "Hori, bada- ki- zu, teknika bat da. Zure papera irakurri duzuenean, lehenik zure konposaketa eta irakurketa propioa egin behar du- zu; zuzendariarekin kontsultatu, ezta- baidatu eta ados jartzea da kontua; beste batek idatzi duen pertsonaia bati anima jarri behar diozu: egoskorra izan behar bazara egoskorrena egin behar duzu...".

Jende batek ordea, pertsonaia-ekin nahasten dute. "Neri esan izan didate: 'Zu ("Joxe Mari") ez zara gaiztoa, zuk ez daukazu kulparik. Zuk beste emazte bat izango bazenu, hobeto portatuko

"Kutturru"k olatu ona harrapatu du eta "windsurf" a gustokoa du, bere bu- ruagan segurtasuna badauka eta apro- betxatu egin behar. "Gurean horrela funtzionatzen du: zaudenean zaude, gero zutaz ahaztu litezke. Estadun ba- dira ni baino askoz kurrikulum han- diagoa duten aktoreak langabezian. Txanpa joan zaie eta beste bat ailegatu arte hor egon behar zai. Gaudenean dirua irabazi egiten da, baina arris- kutsua da, ez da seguritate-rik". "Makinavaja"n parte hartzerik ez du izan, adib., ekaina arte eskusiba sina- turik baitauka "Goenkale"rekin, gero beste serie eta beste lan batzuk egiten hasiko da.

zinatekeen' edo 'Horri ("Maria Luisa"ri) astindu bat eman beharko zenioke'. Eta begiradan edo esateko moduan konturatzen zara nahiko bene- tan esaten dizutela, normalean jende helduak". Fikzioa eta errealtate- a nahastea areago doa: "Nere andre pro- pioarekin, Erreginarekin, paseatzen ibili eta zenbait jendek igoal aurpegi txarrarekin begiratu: 'Hau ez da ba Maria Luisa, hau tranpata ari da'". Sinistuta.

Dena den, pozik agertzen da "eus- kal-kulebroiarekin": "Gauza bat ondo dihoanean, eraman-errazagoa da gaizki dihoanean baino. Nahiz eta 100 kideko talde bat den, oso giro ona da- go". Halere, ez daki nola bukatuko den: "Ez nuke esango eta gainera ez dakigu. Ez digute esaten, aktoreentzat txarra baita aurreratzea zer pasa behar zaien hurrengo egunetan. Zuk ez dakizu bihar zer gertatuko zaizun, bizitzan bezala, eta hobe da gainera, bestela gaurra ez baitzenuke biziko". Nahiago du egun batetik besterakoa irakurri eta kitto.

Jon Mikel Arano

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
☎ 88 13 37

ORDIZIA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Euskal Okela: bertakoa eta kalitatezkoa

Bertan egina, bertan saldua eta kalitatea ziurtatzen duen haragia, 'Euskal Okela', Beasainen eta Ordizian erosteko aukera ere badago. 5 harategi (azpian dituzue ize-nak) eta 80 baserritar daude sartuta Goierriin proiektu honetan. Berri gehi-ago, Fermin Jauregi ataundarrari (Kalitatearen Produktu Artekaria) egindako ondorengo elkarrizketan duzue.

Momentuz, Euskal Okelak, Euskal Bildotsak, Gernikako Piperrak, Arabako Patatak, Baserriko Oilaskoak eta Eztiak dute labela edo kalitatezko marka. "Produktuak marka edo labela lortuko badu, araudi berezi bat bete beharko du, bai produkzioarako, bai salketarako. Bertan egina eta bertan saldua izan behar du", argitu digu Jauregik. Labelaren helburua bertakoa bultzatzea da, "hemen ekoiztutako eta kalitate neurri batetik gora duen produktua ziurtatzea eta identifikatzea" ataundarraren esanetan.


Baserriak, hiltegiak, harategiak

Haragiaren labelari dagokionez, produktore edo baserritarrek, hiltegiek eta harakinek (eta kontsumitzaileek zer esanik ez) onartutako aukera izan beharko da. "Baserritarrak gutxienezko garbitasun eta elikagai neurriak bete beharko ditu. Egiten diren txis eta

pentsu analisietan horrela dela ziurtatuz gero, txahala label izateko mar-txan dagoela esango genuke. Baserri-tarrek ikuluan ez daukate aldaketa be-rezirik egin beharrik, normaltasunez jokatzeko badute", esan digu. Hiltegia-rena da hurrengo fasea. "Hiltegia-emango zaio azkeneko seilua. Berokia kendu eta kremlera irikitzen denean ikusten da animalia nolakoa den, or-duan emango zaio benetako baie-zkoa". Eta hiltegitik harategira. "Ha-rategiko instalakuntzak ikusi, erdia gutxienez label haragia saltzen duena izan behar du, eta horretarako hain-

beste txahal izango duela ziurtatu behar digu. Kontrol sistemak onartu eta baskula bat izango du harakinak. Labela daraman haragia pisatu eta etiketa berezi bat aterako du kontsu-mitzaileentzat, bertan ipiniaz zer erosi duen, pisua, prezioa, eguna e.a."

Baina jakina, guzti horren emaitza kontsumitzaileak baloratu beharko du. "Kontsumitzailea gustora badago, eta harakinak gehiago saltzen badu, gehiago eskatuko du. Beraz labeldun haragi gehiago beharko du". Abantailak hortik etorriko dira Fermin Jaure-



EUSKO LABEL

KALITATEKO

EUSKAL OKELA

**Goierriko harategi
hauetan duzu kalitatezko
Euskal Okela**

KALITATEKO

EUSKAL OKELA

**MUNDUATE
Harategia**

★ ★ ★

☎ 88 74 40
Zaldizurreta, z/g **BEASAIN**

KALITATEKO

EUSKAL OKELA

**OLANO
Harategia**

◆ ◆ ◆

☎ 88 74 40
Zaldizurreta, z/g **BEASAIN**

giren esanetan. "Abantailak golpean ikustea zaila izaten da. Produktu bat merkatuan zabaltzea zaila da, identifikaturik ez badago. Baina ondo eginez gero, produktua gehiago eskatzeko aukera emango du. Kontsumitzaileak eskatzen duenetik aurrera etorriko dira bentajak", gaineratu du.

Goierri 5 harategi aukeran

Urrian hasi zirenetik hona, "gehiegizko" harrera izan omen du proiektuak ataundarraren hitzetan. Autonomia Elkartean guztira 52 harategi eta 650 bat baserriar daude. Beasain da 4 harategirekin, proportzioan, Euskal Okela saltzen duten harategi gehien dagoen herria. Ordizian bakarra dago. "Baserriarrak etengabe ari dira sartzen eta harategiak ere bai. Gero eta eskari gehiago dago harategien alde-tik, orduan gero eta baserriar gehiago behar ditugu."

Gauza guztiek bi alde dituztela eta, honek ere badu desabantailarik. "Kuota bana ordaindu behar dute baserriarrek eta harakinek. Baserriarrek 2.500 pezeta ordaindu behar dute apuntatzeagatik eta diru horrekin urtean bi buru hiltzeko aukera dauka. Gehiago hiltzen baditu, bakoitzagatik 1.250 pzt. gehiago ordaindu beharko ditu. Harakinek berriaz, hilean 5.000 pezetako kuota ordaindu behar dute".

 L.A.



Egindako lanaren ordaina

Esaldi honekin labur daiteke kalitadedun Euskal Okelaren labelarekin lortu duguna. Salneurrien borroka eta kanpoko haragiaren eskeintza merkea areagotu den honetan, gutxi izan gara bertako baserrietan produzitzen den haragiari, merezi duen duintasuna eta horrek eskatzen duen konpromezuari eusteko gai izan garen harakinak.

Zaila da konpromezu maila honi eustea, kanpoko eta hemengo haragiaren arteko diferentzia, askotan, kiloko 100 pezetatik gorakoa izaten baita.

Egia da denok dugula zer ikasia, baserriarrak produzioan eta guk ko-

merzializazioan, baina bi sektoreetako zenbait profesional horretarako prest gaude. Horretarako ezinbestekoa da Administrazioak eratu duen aholku eta kontrol sistemaren zuhertasuna. Oraindik, harakin gehiegi dira bertako haragiaren izenean kanpoko saltzen ari direnak.

Idatzi hau izenpetzen dugunok bertako produktuak indartu, hobetu eta saltzearen alde gaude. Ahalegin horretan jarraituko dugu prezioetan konpetitu ezinak itotzen ez bagaitu behintzat.

Kontsumitzaileek dute azken hitza!

 P. Urretabizkaia, J.M. Olano, I. Zubeldia, I. eta M.L. Munduate

KALITATEKO

EUSKAL OKELA 

**PELLO
HARATEGIA**

Otordu onak egiteko
okel ona ezin besteko

☎ 88 80 11

Mariaratz, 2

BEASAIN

KALITATEKO

EUSKAL OKELA 

**MUNDUATE
Harategia**

☎ 88 12 29

Santa Maria, 23

ORDIZIA

KALITATEKO

EUSKAL OKELA 

IÑAKI ZUBELDIA



Bertako haragiak odolki,
lukainka, saltxitxa eta
aurrez prestatutako janariak

Nagusia, 14

☎ 88 27 47

BEASAIN

EZKIO-ITSASO

Etxeberrialde

Ezagun duzue guztiok Santa Lutzi-Anduagan eraiki den auzo berria, familia bakarrentzako etxeek osatutako ilada luzea. Ezkio-Itsasok izango duen lehen kalea sortu da eta lur sail horietan erre baino lehen ezagutu genuen baserriaren izena eman zaio: Etxeberrialde. Lehen fase honetan 9 etxebizitza jaso dira eta maiatzatik aurrera gehiago egingo dituzte. Bestalde, oraingo zati honek Udalaren ingurunea bereganatu du, pasealekuarekin bat eginez.

Oreina Ehiztari Elkarte

Lehendik ere ehiztariak elkartuta egon bazeuden, baina legalki ez, eta urtarilaren 14ean egindako bileran horixe erabaki zuten, batez ere, usoa ehizatzeke garaian parapetoen zozketa egin ahal izateko beharrezko zutela eta. Gainera, jaietan plater tiroketa antolatzea eta Federazioak lagunduta birpoblatzea ere ez dute baztertzen. Dagoneko indarrean da, bere Estatutu eta guzti, eta ondoko hauek buruan: lehendakaria, Ino Ugarteburu; lehendakariordea, Jose Luis Aranburu; bokala, Joxe Aranburu; diruzaina, Jose Migel Zufiria, eta idazkaria, Jose Mari Zumarraga.

Eliz-Junta

Martxoaren 12an, Itsasoko Ostatuan, urtero egin ohi den bileran Itsaso-Alegiako Eliz-Juntaren erdia berritu zen, 26 etxetako ordezkariak bertan zirela. Iazko diru sarrera-irteeren berri etxez etxe aurreko asteetan banatua zenez, aurtengorako beharrak zehaztera pasa eta hauek jo ziren premiazkotzat: Kizkitzan argi indarraren tresneria konpondu eta lekuz aldatu, txanpona botañ kandelak pizten direnekoa bakarrik Meza egunetan martxan jartzea (irailaren 8an, hurrengo igandean eta Pazkoa egunean), Itsasoko elizatariko argiteria finko ezartzea, Itsasoko kanposantuan auzolanean paretak txu-

kuntzea eta Alegiako Elizako kanporrea kanpotik pintatzea dirua de-
nean.

Ondoren Juntaren erdia berritzeko, goitik eta behetik (Itsasotik eta Alegiatik) zein etxetakok oraindik parte ez duten hartu gogoratu ondoren, bozketaz hauek suertatu ziren aukeratuak: goitik Sarriegiko Arzelus eta behetik Uribarko Aierbe. Bukatzeko, Hil Hermandadea desegin zela eta, hemendik aurrera bilera honetan hilobiratzearen tasa finkatzea erabaki zen. Aurtengorako iazko bera izango da: 10.000 pezeta.

 **Pilare Mujika**

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



AGRIA

SABO



STIHL

Jonsered

Banatzaile ofiziala

Ormaiztegi-Beasain 18. zkia. **ORMAIZTEGI** ☎ 161515 Faxe: 882778

Odol-emaile Elkartea 25 urte odola ematen

Ormaiztegiko Odol-emaile Elkartea orain dela 25 urte inguru sortu zen eta ordu ezkerotik, borondate hutsez urtean bi odol ateraldi edo arauzketen bitartez, dagoen odol beharrari aurre egiten laguntzen du. Gaur egun 144 odol emaileek osatzen dute elkarte hau, inguruko herrietako (Gabiri, Ezkio-Itsaso...) odol-emaileak ere badiarelarik. Elkartea honetako delegatu lanak Migel Anjel Imazek egiten ditu, aurretik urte askotan zehar lan honetan Pablo Lasa aritu zelarik.

Urtean 80-90 boltsa odol betetzeko adina odol ematen dute Ormaiztegiko kontsultorioan elkarte honetako kideek udaberri eta udazkenean burutzen diren bi odol erauzketen bitartez.

Odol ateraketa hauek burutzeko hainbat laguntza jasotzen ditu Elkar-teak. Hain zuzen Kontsultorioko zerbitzuak, herriko 3 harategi, Elozegi ardotezia, Euskadiko Kutxa eta Udala izaten dira laguntzaile. Aurtengo 1. odol ateraketa joandako martxoaren 15ean egin zen eta aipaturiko laguntzaileei eskerrikeri beroenak eman nahi



dizkiete antolatzaileek oraingoan ere jaso duten laguntzagatik.

Nahiz eta Elkarteko partaideak 144 inguru izan, denek ez dute ateraketa guztietan odola ematen; beraz, eta orokorrean hitzeginez, Gipuzkoa osoan dagoen odol beharrari erantzuteko bes-

te odol biltzen ez dela kontutan harturik, odolemaile berriei, bereziki gazteei, dei zabala egiten zaizue odola eman dezazuen. Elkartea honetako ateak odol-emaile berri guztiei zabalik aurkitzen dira.

Aitziber Murua

ZEGAMA

‘Euskara eguna’ Herri Eskolan

Martxoaren 30 eta 31n ‘Euskara eguna’ ospatuko dute Herri Eskolako ikasleek, Zine Aretoan. Horretarako, hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte. 30ean, arratsaldeko 3retan, abestiak, bertsoak eta antzerkia izango da, eta egun honetan Idiazabal eta Segurako haurrak izango dira Zegaman. Hurrengo egunean berriz, goizean olerkiak, abestiak e.a.en ondoren, ekintzei buruzko kartelak egin eta herrian zabalduko



dituzte. Arratsaldean, 2.30etan, abestiak, dantzak, moda desfilea, antzerkia eta ‘Goenkale’ ikusteko aukera izango da. Nahi duzuen guztiok gonbidatuta zaudete.



Zinea

Martxoaren 26an, ‘Willy Milly’ pelikula ikusteko aukera izango da, arratsaldeko 5etan.

6. mailako ikasleak

Udala Palazzo atzeko parkea berritzen

Palazio atzeko parkea txukuntzen ari da Udala azken aldian. Iaz mahai eta aulkiak jarri bazituzten, duela gutxi bertan zeuden insignis pinuak bota dituzte. Pinu hauek zahartuta zeuden eta itsusi egiten zuten Mariano Altuna zinegotziak dionez. Diputazioko teknikoa den Iñaki Aizpuruk eginiko azterketaren ondoren hartu zen erabakia, eta berak darama aurreratzean egingo den berritze lana. Erdian zegoen pinu erraldoia oso ederra zen arren, ingu-



Martxoaren 19an inaguratu zuen Lazkaoko HBk bere egoitza berria den Ansoategi Herrikoa. Taberna txikia baina txukuna den honen inagurazioan, ez zen trikitixa eta pintxo faltarik izan inguratu zirenentzat. Bertan, parean daukan "txabolak" egiten duen enbazaroa izan zen komentario nagusia.

ruan dituen 4 izaiei kalte egiten zien. Gainera 40 urte inguru zituenenez, behala adarrak ihartu eta erortzen has-teko arriskua zegoen. Pinu hau botatzeak nahiko lan eman zuen, erortzean ahal zen txikizio gutxien egin zezan.

Marianoren esanetan, botatako pinuen lekuan haritzak eta antzeko arbolak sartuko dira. Hauek nahiko handiak izango dira, ahalik eta kalte gutxien

jasan dezaten. Parkearen ingurua zuhaixkekin ixteko asmoa ere badute. Honez gain, mahai gehiago jarriko dira, iazko udan jendeak gustora hartu bait zituen. Komendradi azpiko ertzean dauden haritzak ihartuta badaude ere, bertan ez dute berriak sartzeko asmorik, jendea eguzkia hartzen gustora egoten bait da bertan.

✍ Mikel Albisu

ZALDIBIA

Arrese jatetxea

Obra eta berritze-lanak direla-eta denboralditxo batean itxirik egon ondoren, berriro ere ireki ditu ateak Arrese jatetxeak. Estetika berrian estilo rustikoa nabarmentzen delarik, instalazioek berriro ederra hartu baldin badute, zerbitzu aldetik ere badira hobekuntza eta nobedadeak. Berriz ere, bada, Arreseneko plater gozoak dastatzeko moduan gara.

Eskerrak emanez

Zaldibiko amnistiaren aldeko komiteak eskerrak eman nahi lieke Zaharra eta Pototoren omenez antolaturiko ekitaldietan izan zen erantzun zabala ahalbideratu zuten talde eta pertsona

guztiei. Honela jarraitzen du testuak: "Herriaren kontzientzian txertaturik daudenaren adierazgarria besterik ez da eta horixe nahi zuten Zaharra eta Pototok. Eta horixe nahi dute, adibide bat jartzearen, Navalcarneroko espetxean gutxieneko bizi-baldintzak eskatuz gose-greban dauden euskal preso politikoei. Borroka berdineko bi aurpegi. Horregatik animatzen zaituztegu bide berdinetik jarraitzera".

Mus txapelketa

Zubiburu Elkartek antolaturik, mus txapelketa azkarra izango da datorren larunbatean, hau da, apirilaren 1ean. Arratsaldeko 16:30etan emango zaio hasiera eta 4:15etarako izenak emanda

egon behako dute parte hartu nahi dutenek. Bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordainduko ditu parte hartze aldera.

Jendea animatzeko moduko sariak ipini dituztela uste dugu. 1.a: 120.000 pezeta, txapelak eta trofeoak; 2.a: 60.000 pzta.; 3.a: 25.000 pzta.; 4.a: 12.000 pzta.; 5.a: 6.000 pzta.; 6.a eta 7.a: arkume bana; 8.a: bi whisky botila.

4 erregetan eta 6 hamarretako 3 us-teletara jokatu dira partidak. Haserre edo liskarrik sortuko balitz, epaileak izango luke azken hitza eta erabaki horren kontra ez da inora jotzerik izango.

✍ Rufino Iraola

Loinatz Jaiak ez dira atzeratuko

Udal hauteskundeak direla eta, Loinatz jaiak atzeratuko zirenaren zurrumurrua zabaldu bazen ere, berean uztea erabaki da. Hau da, maiatzaren 26tik ekainaren 4ra (Aste Santutik 40 egun ingurura) ospatuko dira jaiak.

Erauskin plazako zuhaitzak

Erauskin plazaren berritze lanak direla eta, kendu berri dituzten 3 zuhaitzak lekuz aldatuko dituzte. Joan zen ostiralean iskanbilaren bat edo beste izan bazen ere, zuhaitzak Letamendia Parkera, Loinatz Depositura edo Pergola atzeko etxeetara eramango omen dituzte, Gurea enpresak zuhaitzak errekupegarriak direla baieztatu baitu. Plaza berriaren amaieran, 12 Gezezio Japoiari landatzeko asmoa da.

Antzizar lotunea

Martxoaren 11n Loiolako Herri Irratiak Beasaini buruz egindako saio berezian Jose Luis Arriola alkateak baieztatu zuenez, Antzizarko loturaren jarraipeneko lanak uda ondoren berrasiko dira. "Antzizarko lotura ia bukatuta dago, eta jarraipenak, Ezkio-



Itsasora bitartekoak, 4.000 milioiko aurrekontua du. Ormaiztegiko Udalarengatik egon dira lanak geldituta, zenbait aldaketa egin nahi izan dituela eta".

Alkartasuna Lizeoa

Irratsaio berdinean Alkartasuna Lizeoko arazoari buruz egindako galderan, bitartekari lana egiten ari den alkateak zera esan zuen: "Bi aldeetako hiruna partaide daude mahaian. Tentsioa nahiko baretu da hasi ginenetik hona. Bi aldeek ikusten duten irteera bakarra zatiketa da. Zatiketa hori orain ari dira negoziatzen. Jaurlariak zatiketa hori posibilitatzen du. Bi proiektu horiek aurrera eramateko

Beasainen zein aukera fisiko dauden aztertzeko eskatu genion Jaurlari-tzari eta horren zain gaude. Denok ikusten dugu zatiketa ez dela ona inorentzat, baina ez dugu beste biderik ikusten".

Ikustaldi gidatua

'Ai Geala' euskara taldeak ibilaldi interesgarri bat prestatu du martxoaren 26rako, Zeraingo hainbat bazter bi-

txi eta interesgarri ikusteko. Ikustaldi honen bide-erakusle, gidari eta maixua Joxetxo Zufiaurre izango da. Barrendain plazatik (goieko 9etan) auto partikularrean abiatuko dira Zeraina. Larrendo baserria, makinexea, lehen-gaietako biltegiak, trenbidea, tunela, mineral pilaketak, labe ondoko kargalekua, labeak, zepa, etekinen kargalekua, zerrategia, Zeraingo museo etnografikoa eta beste zenbait bitxikeria ikusteko aukera izango da. Hamaike-takoa eta mendiko oinetakoak eramatea komeni da. Horretaz gain, museoa eta zerrategia ikusteko 100na pezeta ordaindu beharko da.

 Izaskun Salazar

Gero jator eta atsegina



BASAKANA
ITURRIOZ 11
BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



**GOKINDEGA
GARBINA**

Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
88 77 58 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

**LOINATZ
Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 88 20 07 BEASAIN

**MARI JOSE
MERTZERIA**

Kinkila-denda

887267
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Emakumeen Egunaren oihartzunak

Emakumearen Eguna aitzakitza hartuz, hauek jasaten dituzten bortxaketa eta erasoei buruzko emendakin bat aurkeztu zuen HBk azken plenoan. Berau, testuan aldaketatxoak egin eta gero, adostasunez onartu zen. Testuak funtsean zera adierazi nahi zuen: emakumeek jasaten dituzten bortxek eragin sozial handia dutela, bai edozein gizarte-mailatan, bai herrietako edozein giroetan. Honen aurrean Udalak aktiboki parte hartuko du sensibilizazio eta prebentzio kanpainetan, erasoak jasan duenak behar bezainbat informazio eta atentzio jasoko du eta (honek erasoaren berri eman nahi balu) Udalak akusazio partikularra hartuko du bere gain.

Herritarren partehartzea plenoetan

Azken Udalbatzan baita ere, Ordizia-ko Ezker Batuak askotan luzatu duen proposamena mahairatu zuen: plenoetan herritarren hitza entzun dadila. Hori bai, interbentzioetan argi utzi beharko da baikoitza ze alderditakoa, ze gizarte-taldekoka den edo identifikatu egin beharko da. Proposamena, gainontzekoetan bezala, atzera bota zen ahobatez.

Tximinia erori Bustuntzan

Ez-ohizkoa. Ez da oso normala etxe batetako tximini zati bat apurtu eta erortzea. Ba hau martxoaren 10ean, 9,30ak inguruan gertatu zen, erosketak egitera zihoazen etxeoandreen harridurarako, Gipuzkoa kaleko 14 portaleko tximinitatia lurrera erori zenean, izugarrizko zarata aterez. Haize-bolada handia bazebilen ere, tximinia egoera txarrean zegoela aipatzen da. Nahiz kotxe bat apurtu, zauriturik ez zen izan, zorionez.

Aintzinako Tresnen Azoka

Azoka hau martxan jarri zenetik 7 hilabete pasa direnean, Udala eta bildumazaleak prest daude berori mantendu eta indartzeko. Dakizuenek hilabeteroko 1. larunbatetan egiten da azoka Beti-Alai pelotalekuan eta momentuz Gipuzkoako bakarra da. Orain artekoen balorazioa oso positiboa izan da aintzinatekarienez, nahiz eta oraindik erosleen artean badagoen tresna zaharren gaineko nolabaiteko gezurrezko ideia bat: zakarretatik bildutakoak direla. Gauzak bestela dira.

Ortzadar Argazki Elkarte

Azken boladan beherakada somatzen ari zen Ortzadar A.E.ak aldi berri bati ekin dio. Lehendik egiten ziren hainbat ekintza jarri nahi ditu berriro martxan: irteerak leku desberdinetara, bazkideen arteko lehiaketa, beste herrietako argazkilarien erakusketak... Barrenan dute egoitza, bi laborategiz gain, argazki-estudioa eta bulegoa dute bertan.

Futbol txapelketak

Lagunarteko futbito txapelketa amaierara iristen ari den bitartean (finala hilak 25ean), gure artean hain ezaguna den Anexoko Txapelketa hasi da ia. Aurtengoa 16.a izango da eta antolaketa lanak egitea egokitu zaienak "Laostia-jode" eta "Leizea" dira. Guztira 19 taldek eman dute izena, ohitura den lege bi multzotan banatuak. Futbola atsegin duzenok hor duzue aukera goi-mailako neurketak ikusteko larunbat arratsalde eta igande goizetan.

 Aitor Calvillo

IDIAZABAL

Egonaldiak familia euskaldunetan

Eusko Jaurlaritzak kaleraturiko 'Egonaldiak familia euskaldunetan' plangintza aski ezaguna da herrian, ez baita oraingoxea Idiazabalgo baserrietara euskara ikastera jendea etortzeko ohitura. Herri gunetik pare bat kilometrorra, tontor batean dagoen Aritzeder baserrikoak (Kataraindarraren sendia), udaro izaten dira prest euskara ikasteko borondatea duen edonor hartzeko.

Estibalitz dugu Aritzeder baserriko alabarik zaharrena, eta honela mintzatu zaigu plangintza edo muntaia honi buruz: "Beno, egia esan ez naiz ongi gogoratzeko nola hartu genuen euskara ikastera jendea etortzeko erabakia. Dakidana da, Eusko Jaurlaritzak plangintza hau sortu aurretik ere, izan ditugula bixitariak etxean". Arrazoiak aipatzera koan zerak aipatu dizkigute ama-alabek: "arrazoirik garrantzitsuenak, euskarene egoera tamalgarri honi nola edo ha-



la bultzada bat ematea da. Gure esku badago euskaldun berri bati hitz egiteko erraztasuna ematea, ateak parez-pare ireki nahi dizkiogu, gainera honen truk laguntzatxo bat lor badezakegu, ongi baino hobeto datorkigu".

Esperientzia oso ezberdinak bizi izan dituzte Aritzederren. "Denetarik igaro da hemendik, batzuk hiztunak eta euskara poliki menderatzen zutenak; beste batzuk ixilak eta justukoa, beharrezko-

na bakarrik esaten zutenak; eta hurrengoak berriaz, erdaraz tarra-tarra aritu ondoren euskara ikastera baino oporrak igarotzera etorri zirela ziruditenak. Orokorrean jende jatorra tokatu zaigu, esperientzia ere bide beretik etorri da", zehaztu digute.

Ikasleek ez dute izaten baserriko lanik egiteko obligaziorik. "Ez dute inongo betebeharririk, ez agindu ezta egitekorik ere hemen diren bitartean. Euskara ikastera datorrenak ordaindu egiten du etxe honetan hilabete baten buruan euskaraz hitz egin eta euskaraz bizi ahal izateko. Ondorioz, norberak bere borondatearen arabera lagundu ohi du".

Esperientzia honetan parte hartu nahi baduzu, Udaletxean eska dezakezu xehetasun gehiago, apirilaren 1a aurretik.

 Aloña Galarraga

9 ume berri eskolan

Urte txarragoak izan dira. 9 eskolaru berri hasiko dira datorren ikasturtean herriko Eskolan. Aurreko urte batzutan izan den ume eskasia ikusita, konforme samar egoteko moduko taldea. Ikusi bestela, azken urteotako matrikulazioak:

Iaz (94-95): 4 hasi ziren; 93-94an: 13; 92-93an: 5; 91-92an: 8; 90-91n: 9; 89-90ean: 15; 88-89an: 10.

Aspaldiko urterik onena 85-86koa izan zen. Orduan

19 ume hasi ziren Eskolan. Gaur egun 120 haur eta 13 irakasle dabilta. Eskolaru guztietatik, 84 Samartingoak dira, 28 San Gregoriokoak eta 8 Aia-koak. Horietatik 61 mutiko eta 59 nekato. Etorkizuna? Aurten ez da oraindik umerik jaio Ataunen, baina udaberriarekin batera, *jaio*ko dira berriak!

Organoa Eguberriarako prest

Jexux parrokoak esan digunez, gauzak ondo Gabonetarako amaituko dira San Martingo elizako organoa konpontzeko lanak. Orain bi urte hasi zituen lanak Katalunyako "Arrizabalaga" enpresak eta aurreko astean Ataunen izan dira organoaren aurpegiarekin zer egin erabakitzeke. Elizan organoaren fatxada besterik ez dago, gainerako guztia eraman baitzuten.



Organoaren "aurpegiak" berrizatu aurretik.

Arg.: Jexux Aizpurua

Goenkalekoak bixitari

Etzan asarre jendea martxon amarren. Gue ingurun ze itzeiñe jarri don *Goenkale* saioko bi kome-riante etoi zien Eskolatio otseinda. "Karlos" eta "Sara"n papera eitten duen Jose Kruz azkoitiarra eta Anabel lakuntzarra. Earki asko ezautzen dittue. Ikusi eiññ bear zango galderak eiñ bearra eta autografok firmau bearra. Beize etortzeko gogokin jungo al zien beintzat?!

Ta Goenkale aikatu deunez, Maite Aizpurua erritarra e, beññ o beññ ikusi deu atal batzutan ta earki asko aittu dala esan bear. Ea aukera geio izate on.

Uda partean hasiko dira aurpegia garbitzen eta ez omen dugu ezagutu ere egingo, hasiera-hasierako kolorea eman nahi diotelako.

Konponketa lanen kosta-ua ikaragarrikoa da: 22 milioi pasatxo eta guztia Gipuzkoako Diputazioak ordainduko du. Pipiak jota zegoen erabat eta lan haundiak. Ataungo organoa oso estimatua da, 1761ean egin zuen Oñatiko Lorenzo Arrazolak eta Euskal He-

rrian beste bakar bat dago honen berdina, Bizkaiko Zenarruzako Monasterioan, baina txikiagoa izan behar du. Okerrik ez dela Samartinetan egiten hasiko dira montajea eta Eguberriarako dena pronto izango da.

Telebista ikusteko arazoak

Udaletxetik esan zaigunez, kate pribatuak ikusteko instalazioak egin badira ere, oraindik Ataungo zoko batzutan ez dira ikusten. Esate baterako Urkillagatik behera Aia aldean, Lauztierrekan, Arinberriagan, Errotakale-Intxaurrondo inguruan etabar. Udalak ahal bezain azkar konponduko du arazo hau.

 Jon Aizpurua



MUJIKA



BEASAIN


☎ 88 74 00



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, bataz beste, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin



Tfinoa: 885500 ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfinoa: 88 87 02

BEASAIN

Herriko leku-izenen berreskuraketa

Adituek diotenez belaunaldiz belaunaldi leku izenen %75a ere gal daiteke. Beraz, zenbat eta lehenago egin toponimia ikerketa orduan eta balore handiagoa izango du honek. Udalaren inizatibaz eta lehen ere Bilabona eta Hondarribia bezalako herrietako leku izenak jaso dituen "Etnogintza" etxe berezituak hartuko du bere gain lan hau. Artxiboko lanez gain, soroz soro pasako dute herri osoa, baina batez ere herritar helduekin egin beharreko lana interesatzen zaie. Guzti hau azalduz Udalak karta bat bidaltzeko asmoa du etxe guztietara. Ikerketa bukatu ondoren, leku izenak eta beste hainbat aztarna (karobiak, telleriak, buztin labeak...) jasoko dituen toponimia mapa argitaratu eta etxez etxe banatuko da. Apirilaren hasiera aldean dira lanean hastekoak.



Honelaxe dago momentu honetan Lilikuko pikota. Erreka garbitu zeneko batean utzi zuten bezala.

Lilikuko pikota

Arantzadi Zientzi Elkartek azterketa baten ondoren balore handikotzat jo du duela gutxi agertutako urkamendiaren oinarria (ikus 56./57. GOIERRITARRAK). Udalak ikerketa aurrera eramateko asmoa du eta Arantzadikoek 3 fasetan burutuko dute. 1. an dokumentu ikerketara mugatuko dira, 2. fasean ingurua bera ikertuko dute eta 3. ean ingurua txukuntzeko asmoa dute, pikota eta inguruaren berriztatze lanarekin hasiz.

Kale, plaza eta auzo izenak, Azulejoz lehengo erara jartzeko asmoa dago bestalde, eta aurrerago herriko zenbait etxe eta baserriren izenak ere bai.

Kultur astea Laiotz Eskolan


Martxoaren 26tik apirilaren 2ra bitartean ondorengo egitaraua gauzatu-ko da Herri Eskolan:

26an: Zegamako Orkatz Txiki abesbatzaren emanaldia Aterpetxean 12,30etan. **27an:** Pello Añorga ipui kontalaria bi ziklotako ikasleentzat eskolan bertan. **28an:** Haurren jaialdia: antzerkia, abeslariak... Aterpetxean 3retan. **29an:** Xake eta dama txapelketa eskoletan 2,30etan. **Marrakzi txapelketa** plazan. **30ean:** Haurren hezkuntzari buruzko hitzaldia Lontxo Oiartzabal EHuko irakas-

leak emana. Kultur etxean 7,30etan. **31n:** Xake eta dama jokuen finalak eta haur jolasak 2,30etan; Ander Letamendia medikuaren hitzaldia, "Kirola haurraren garapenean", 7,30etan Kultur etxean. **Apirilaren 1ean:** Parapentea 4,30etan. Ondoren Kriseilu txistulari taldearen kalejira, buruhandi eta erraldoiekin batera. **2an:** 11etan Segurari jira-bira Laureano Telleria erakusle dela. 5etan Takolo, Pirrux eta Porrotx-en emanaldia Baratze pelotalekuan.

II. Elorri Lehiaketa

Martxoaren 12ko sari-banaketan eman ziren jakitera II Idazlan lehiaketako irabazleak: A sailean Naiara Goia, Nora Imaz, Garazi Goia, Iñigo Otegi eta Larraitx Intsausti. B sailean Inge Olano, Maitane Salsamendi, Arantzazu Muñoa eta Itxaro Alustiza. Guztira 33 lan jaso dira.



Joseba Auzmendi erremontelaria finalaurrekoetarako sailkatu da, Ezkurdiarekin batera, Galarretako XXV. urteurreneko tormeoa.

Bertso afaria eta omenaldia

Martxoan eta apirilean Goierriko zenbait elkarteetan burutuko diren afalondorengo bertso saioetako bat Elorri Elkartean izango da martxoaren 31n. Bertan, Gerriko, Narbarte, Aranburu eta Eguren arituko dira. Afari berean Elorriko omenalditxo bat egingo die Aconcagua igo berri duten Aitzol Telleria eta Felix Goibururi. Bestalde hilak 29ko iluntze partean Aconcaguari buruzko filminak eskeiniko dute Aitzol eta Felixek, Kultur Etxean.

Dantza sueltoko ikastaroa

Elorri K.E.-ak antolatuta dantza sueltoko ikastaroa jarri nahi da martxan. Ikastaroa Euskadiko Dantzarien Biltzarrekoa eta Euskadiko Dantza Txapelketako epaimahaikoa den Jexux Mari Garatek zuzenduko du. Izena emateko epea apirilaren 1era arte dago zabalik Elorripen. Baina izan duen arrakasta ikusirik, dagoeneko 60tik gora apuntatu baitira, antolatzailerek bilera bat antolatu dute martxoaren 24, 6etarako, Elorri. Bertan talde banaketaz eta ikastaroaren xehetasunez hitzegingo da.

 Joseba Telleria



Idiazabalgo axarikumeak 1976an

Idiazabalgoak ditugu hauek. 1971-72 urtean jaiotakoak dira eta eguna gogoratzen ez badute ere, argazkia 76an ateratakoa omen da.

Zutik: Aitor Imaz, Aitziber Urkia, Amaia Iparragirre, Miren Urteaga (irakaslea), Xabier Goiburu, Xabier Collado, Asier Ormazabal. **Eserita:** Ibon Imaz, Iratxe Urkia, Iñigo Gernika, Asier Oiarbide, Migel Mari Imaz. **Lurrean:** Ainhoa Iriondo, Gorka Egialde, Egoitz Zufiria, Oier Urteaga, Xabi Urteaga.

KEMEN KIROLAK



GOIERRITARRA

☎ 88 96 12

Faxa: 88 27 19

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitzeko aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00


Apirilaren 3an txirrindularirik onenak Zegaman

Egun horretan hasiko da Euskadiko Txirrindulari Itzuliaren lehen etapa. Honen antolakuntza Zegamako Elkartu Nahi Txirrindulari Elkartearen esku dago. Duela 14 urte sortu zenetik elkarreko kide diren Juanjo Gorrotxategi eta Jose Aierbek azaldu digute, Zegaman laisterketa honen eta orokorrean txirrindularitzaren inguruan dagoen saltsa.

1988an Txirrindulari Itzuliaren azken etapa Zegamara ekartzea lortu zuten Elkartu Nahikoek. Lana ondo egin zuten eta "Organizaciones Deportivas El Diario Vasco"-k aurtengoaren hasera antolatzeko aukera eman zien. Horretan aritu dira azken 7 urteetan. Juanjo Gorrotxategik dionez, "egoera ekonomikoa nola dagoen ikusita, dirua izan da arazo handiena. 7 miloi inguru behar ditugu asmoa aurrera eramateko, eskerrak 88a ezkerotik dirua ateratzen aritu garela, 92rarte festetan txozna jarri dugu, eguberrietan saskiak zozketatzen ditugu... Pilatuta genuen diru horri esker atera gara aurrera. Udala eta herriaren laguntza badugu, baina hemen ez dago indus-triarik eta hori nabaritu egiten da".

Dena ondo lotuta

"Organizaciones Deportivas DV"-koek listoa altu dute antolakun-



tza mailan, itzulia, klasika, tour-eko etapa bat, munduko txapelketa... Hau dela eta asko exijitzen dute. Ekipoen 72 auto, helikopteroak, Ertzaintza eta telebistaren 3 trailerrentzat lekua, meta, podiuma etabar luze bat ondo lotuta egon beharra dago laisterketa egunerako. "DVkoak lagunak ditugu eta hasera batean, zegoen arriskua ikusita ere gurekin konfidatu ziren. 88ko bukaera eta kronoigoera antolatu genuen. Kontutan hartu behar da, Zegama bezalako herri txiki bat mugatuta dagoela, bai diru eta baita azpiegitura aldetik horrelako laisterketa bat antolatzeko. Hala ere orain duela 7 urte baino gehiago exijitzen digute. Adibi-

dez, ofizina iraunkorra oso eroso eta dotore prestatu beharra dago etortzen diren kazetariak eta gustora egoteko", dio Aierbek.

Bost bat hilabete daramatzate "egun handirako" prestaketa lanetan. Elkarreko 5-6 kide aritzen dira horretan, "nahikoa da, bakoitzak ardura bat hartu eta hura lotzeko. Gero laisterketa aurreko egunetan eta egun berean, lana egiteko 120 lagun inguru mugitzen ditugu. Jendea ondo portatzen da, ez honetarako bakarrik laisterketa txikietan ere bai". Hainbeste lan egin ondoren dena ondo ateratzea dute erre-kompensazio onena. Aurrekoa buka-

JOXE TELLERIA, S.M.

Aseguru - Korreduria



*Beti prest gauzkazu zure arazo guztiak konpontzeko.
Ez dago hoberik!*



Erauskin Plaza, 2
BEASAIN

☎ 88 26 43 - 88 71 55
Faxa: 88 71 55

tzear lagundu zuten guztiei afari bat ordaindu zien eta antolatzaileek diotenez, "dena bukatu, 400 pertsona afaltzen gustora daudela eta ondo ateha dela ikustea oso atsegina da".

Itzulia Goierrin - Apirilak 3

Zegama.....	2.00
Segura.....	2.08
Beasain (N-1).....	2.18
Ordizia (N-1).....	2.21
Itsasondo.....	2.26
Legorreta.....	2.29
Legorreta (N-1).....	2.56
Itsasondo (N-1).....	3.02
Ordizia (N-1).....	3.04
Beasain (N-1).....	3.08
Segura.....	3.18
Zegama (Tart. Helmuga).....	3.26
Otzaurte (2. maila).....	3.38
Lizarrusti.....	4.25
Ataun (S. Martin).....	4.45
Lazkao (bariantea).....	4.50
Beasain (N-1).....	4.53
Segura.....	5.05
Zegama (helmuga).....	5.12

Zaletasun handia

Zegaman txirrindularitza ez da egun bakar batera mugatzen. Bertan zaletasuna aspaldikoa da, orain 75-80 urte dituztenetatik hasita txirrindulari ugari iza da: Xabino Azurmendi, Inaxio Urbietia, Pablo Arakama, Agustin "Araitz", Joxe Idigoras, Pedro Aierbe, Eulogio eta Jabier Albisu, Joakin Irastorza, Jesus Mari Guerra, Maximo Larrea, Jose Luis Berasategi, iaz erretiratu zen Eduardo Irastorza, eta batez ere prefesionalak iritsi ziren, Agustin Otxoa eta Inaxio Arrieta. Gaur egun

berriz, Joseba Izagirre, Rafa eta Ivan Gonzalez, Aitor eta Ander Perez eta Jon Zabaleta dabilta txirrindu gainean. San Bartolometa-ko afizionatuen proba berri, Gipuzkoako 2. zaharrena da eta horregatik Zegamak du lehentasuna abuztuaren azken igandeko laisterketa antolatzeko.

Herriko zaletasunean, lehen Reynolds eta gero Banestoko afizionatuak Manolonen egoteak ere izan du zerikusia. "Herriko zaletasunak ekarri zituen hona, gero, herrian egunero ziklistak ikusteak txirrindu-giro bat sortu badu ere. Guk afizionatuen taldea utzi behar genuela eta Arrietaren askatasun karta firmatzera Unzué etorri zen. Berari Manolone gustatu zitzaion eta horrela lehenengo Ridaura eta Sanchis etorri baziren ere, gero Indurain, Gaston eta beste hainbat pasa dira". Gogoratzen du Gorrotxategik, baita hainbat txirrindularien, bihurrikeria eta anekdotak bezalaxe.

Herriko gazteei laguntzen

Elkartu Nahi Elkartea duela 14 urte sortu zen. Aurretik ere txirrindularitzan lanean ari baziren ere, hau egoera legezatzeko urrats bat izan zen. Urtean 3 laisterketa antolatzen dituzte: kadete, jubenil eta afizonatu mailakoak. Honez gain herriko txirrindulariei laguntza ematen saiatzen dira: "tubularrak ematen dizkiegu, kuadroa hausten ba-



dute, berria erosten lagundu. Afizionatuetara iritsi arte mediku azterketa bat egitera eramaten ditugu, eta honek jarraitzeko janari eta entrenamentu taula bat jartzen die. Lehen larunbatetan herrikoentzat laisterketak ere antolatzen genituen, beti ari gara zer-bait egiten".

Hau dena zaletasunagatik egiten dute, gastu guztiak poltsikotik ordaintzen dituzte, bidaiak, bazkari-afariak etabar. Adibide gisa Indurain omenaldia egiteko Zegamara ekarri zutenean, honen afaria ere poltsikotik ordaindu zuten. Ilusio eta gogo handiz ari dira lanean eta horrela jarraitzeko asmoa dute, oraingoz munduko txirrindularirik onenak bilduko dituen laisterketa antolatzen ari dira. Indurain bakarrik falta den proba honetan Zulle da faborito beraien ustetan, Jalabert eta Berzin ere ahazten ez badituzte ere. Gainera, laguna duten Indurainek 5. Tourra irabaziko duela ez dute dudatan jartzen.

 Mikel Albisu

GOIERRITARRA



88 96 12



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen dendan, Arrondon.

Segurako Erosle eta **Idiazabalgo** Alda-nondon.

Ikusmenerako azken-azkena karteran eramaten da

Dirurik gabe erosteko erarik errazena.



Ahantz ezazu dirua. MULTIOPTICASek bere kreditu-txartel berria aurkezten du.

Zure erosketak egin eta titularrek baino ez dituzten pribilegioak izateko erarik erosoena. Deskontuak, 30, 60 eta 90 egunetara geroraturiko ordainketak, errekariguri gabe, ... eta zeuri egokituriko finantzaketa izateko aukera. Zatoz informatzera.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Ibargaray, 16 - BERGARA • J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE • J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA



ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA